



GOBERNANZA PÚBLICA
ETA AUTOGOBIERNO SAILA
Eusko Jaurlaritza
DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA
PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO
Departamento de Asesores

ELKARTEAREN ESTATUTUAK

LEHENENGO KAPITULUA

IZENA ETA LEGE-ARAU BIDEA

1. artikulua.- 1999ko martxoaren 30ean, AS/G/07895/1999 erregistro-zenbaklarekin Inskribatutako Ordizlako ASOCIACIÓN ORDIZIARRA DE ALEGRES TROVADORES-ORDIZIAKO TROBADOIRE ALAIK (O.T.A.) ELKARTEA entitatearen estatutu hauek aldatu egin dira, Euskadiko Elkarteel buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legean eta Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera eta Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren 9. eta 10.13 artikuluetan azaltzen denarekin bat etorritik.

Elkartea arau hauen mende egongo da: aipatutako elkarteel buruzko legeak, estatutu hauek (legearen aurkakoak ez badira), elkartearen gobernu-organismoek behar bezala hartutako erabakiak (legearen edota estatutuen aurkakoak ez badira) eta Eusko Jaurlaritzak onesten dituen erregelamenduzko xedapenak (azken horiek osagarriak izango dira).

ELKARTEAREN HELBURUAK

2. artikulua.- Hona elkarte honen **HELBURUAK**:

- Ordizlan mugimendu musikala bultzatu eta talde berriak laguntza ematea, herri eta instituzioen laguntzaren bidez.
- Herriko kultur eragile izan eta beste eragile batzuekin elkarlana sortu.

Helburu horiek lortzeko, **JARDUERA HAUEK** egingo dira, ezarritako legezko betekizunak bete ondoren:

- Beraien musika ezagutzera eman kontzertuen bitartez.
- Beraien azpiegiturekin kultur beharrei erantzuten salatu.
- Ordizla Rock festibalaren antolaketa.

Aurreko paragrafoan azaldutako jarduerak gorabehera, elkarteak, bere xedeak betetzeko, honako hauek egin ahalko ditu:

- Helburuak betetzeko edo horretarako ballabideak biltzeko era guztietako jardura ekonomikoak gauzatu.
- Era guztietako ondasunak edozein tituluren bidez eskuratu eta eduki, eta mota guztietako egintzak eta kontratuak egin.
- Nolanahiko ekintzak burutu, betiere legeekin eta Estatutuekin bat etortzekotan.

HELBIDE SOZIALA

3. artikulua.- Elkarte honen egoitza helbide honetan egongo da: Kalea: Filipinak zk 20A: solairua: 2A Udalerria: Ordizla P.K.: 20240.

Elkarteak beste lokal batzuk ere eduki ditzake Autonomia Erkidegoan, Batzar Orokorrek hala erabakitzen badu.

LURRALDE EREMUA

4. artikulua.- Elkarteak batez ere hemen garatuko ditu bere funtzioak: Ordizian.

IRAUPENA ETA IZAERA DEMOKRATIKOA

5. artikulua.- Elkarteak iraunkorra izateko eratu da, eta VI. kapituluaren esaten den bezala ezohiko batzar orokorrean hartutako erabaki bidez baino ezingo da desegin, edo legeetan aurreikusitako arrazoiren batengatik.

Elkartearen funtzionamendua eta barne-antolamendua demokratikoa izango da, eta pluraltasuna erabat errespetatuko da. Erabat deusezak izango dira elkartzeko oinarritzko eskubidearen alderdietako edozein betetzen ez duten itunak, estatutu-xedapenak eta erabakiak.



GOBIERNO VASCO
GOBIERNUA PUBLIKO
ETA AUTOGOBIERNU SAILA
Eusko Jaurlaritzaren
DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA
PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO
registro de Asociaciones

BIGARREN KAPITULUA

AGINTE- ETA ADMINISTRAZIO-ORGANOAK

6. artikulua.- Elkartearen agIntea eta administrazioa kide anitzeko organo hauen esku egongo da:

- Bazkideen Batzar Orokorra izango da organo gorena.
- Zuzendaritza Batzordea izango da kide anitzeko zuzendaritza-organoa iraunkorra.

BATZAR OROKORRA

7. artikulua.- Batzar Orokorra bazkide guztiek osatzen dute, eta organo honen bidez adierazten dira bazkideen nahiak.

Batzar Orokorraren ahalmenak:

- a) Elkartearen jarduera-plan orokorra onartzea.
- b) Urteko kontuak eta hurrengo ekitaldiko aurrekontua aztertu eta onartzea.
- c) Zuzendaritza Batzordearen kudeaketa onartzea.
- d) Estatutuak aldatzea.
- e) Elkarrekin desegitea.
- f) Presidente, Idazkaria, diruzaina eta kide anitzeko aginte-organoko gainontzeko kideak -horrelakorik baleude- izendatzea eta kargutik kentzea; eta horiek guztiak ikuskatu eta kontrolatzea.
- g) Beste elkarte batzuekin batera federazioak eta konfederazioak osatzea, edota horietatik ateratzea.
- h) Ondasun higiezinak erabili edo besterentzeko erabakiak hartzea.
- i) Aginte-organoko kideei ordaindu egin behar zalela erabakitzea, hala komeni bada.
- j) Kuota arruntak eta bereziak ezartzea. Ahalmen hori, hala ere, Batzar Orokorrak aginte-organuari eskuordetu diezaloke horretarako bereziki hartutako erabakiaren bidez.
- k) Bazkideak behin betiko kanporatzeko erabakia hartzea.
- l) Beste organo sozialen bati esleitu gabeko beste edozein eskumen.

8. artikulua.- Batzar Orokorrak salo ohiko bilkurak eta ez-ohiko bilkurak egingo ditu.

9. artikulua.- Batzar Orokorrak gutxienez urtean behin egin beharko du ohiko bilkura, 7. artikuluko a), b) eta c) idatz-zatietan zehaztutako erabakiak hartze aldera.

10. artikulua.- Batzar Orokorra Zuzendaritza Batzordeak erabakitzen duenean bilduko da ezohiko bilkuran, bere ekimenez edota bazkideen %. 25ek eskatu duelako. Bilkura eskatzeko arrazoiak eta helburuak azaldu beharko dira, baina, nolanahi ere, honako galak aztertze eta erabakitzeko bilduko da:

- a) Estatutuak aldatzea.
- b) Elkarrekin desegitea.

11. artikulua.- Batzar Orokorra biltzeko deialdiak idatziz egin behar dira, eta bilkuren tokia, eguna eta ordua adierazi beharko dira, bai eta gai-zerrenda ere, eztabaidatuko diren gaien aipamen zehatzarekin. Deialdia egiten denetik bilkura lehen deialdian egiteko ezarritako egunaren artean gutxienez bost egun pasatu beharko dira. Hala badagokio, bigarren deialdiaren data eta ordua ere adieraz daitezke. Dena dela, deialdi batetik bestera gutxienez ordu erdiko tarte utzi beharko da.

Batzar orokorrak -ohikoak nahiz ezohikoak- deialdian balio osoz eratuta geratuko dira lehenengo deialdian, botoa emateko eskubidea duten bazkideen herena bertaraten bada; eta bigarren deialdian, botoa emateko eskubidea duten bazkideen kopurua edozein dela ere.

12. artikulua.-

Batzar Orokorraren erabakiak gehiengo sollez hartuko dira, hau da, bertaratuen nahiz ordezkatuak balezko botoak ezezkoak baino gehiago direnean. Dena den, bertaratutakoen edo ordezkatuak gehiengo osoa beharko da (erdia + 1), honako erabaki hauek hartzeko:

- a) Elkarreak desagitea.
- b) Estatutuak aldatzea.
- c) Ondasunak erabili edo besterentzea.
- d) Ordezkaritza-organoko kideei ordaintzea.

FIGURA JURIDIKUA
GOBERNANTZA PUBLIKO
ETA AUTOGOBERNANTZA
LIBERTADEN ERREKURSO
DEPARTAMENTO DE GOBERNANTZA
PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO

13. artikulua.-

Bazkideek beste edozelaz bazkideri eman ahalko diote beralek ordezkatzeko ahalmena batzar orokorretan. Ordezkaritza hori emateko baimena idatzirik egin beharko da, eta batzordeko idazkariak saloa hasi aurretik eduki beharko du. Elkarrearen helbide soziala dagoen herritik kanpo bizl diren bazkideek postaz bidali dezakete ordezkariak beste norbaiten esku uzteko agiria.

ZUZENDARITZA-BATZORDEA

14. artikulua.-

Zuzendaritza Batzordea da Batzar Orokorraren xedapen eta zuzentzauei jarraikiz elkarrearen interesak kudeatzen eta ordezkatzeko dituen organoa. Bazkideek baino ezingo dute osatu ordezkariak organoa.

Zuzendaritza Batzordea osatuko dutenak honakoak izango dira: (EZ ADIERAZI ZUZENDARITZA-BATZORDEKO IZEN PROPIORIK, BATZIK ETA ZUZENDARITZA-BATZORDEKO KARGUAK, SOILIK). (BETE "X" BATEN BIDEZ DAGOKION LEKUTAN)

- ☐ Lehendakaria
- ☐ Idazkaria
- ☐ Diruzaina

15. artikulua.-

Zuzendaritza Batzordeko kideren bat bilera horietara 2 aldiz jarraian, edo, tarteka 3 aldiz agertzen ez bada, dagokion kargua utzi egin beharko du, hutsegite horiek ez baditu arrazoitzen.

16. artikulua.-

Batzar Orokorrak hautatuko ditu Zuzendaritza Batzordeko kargudunak. Kargu horiek **5 URTERAKO** izendatuko dira, Batzordeak berariaz baliogabetu ezean, eta kargudun berbera behin eta berriz hautatu ahal izango da.

17. artikulua.-

Pertsona fisikoek zein pertsona juridikoen ordezkariak baldintza hauek bete beharko dituzte Zuzendaritza Batzordeko kideak izateko:

- a) Adin nagusikoa izatea, eskubide zibil guztien jabe izatea, eta indarrean dauden legeetan ezarritako bateraezintasun-arrazoirik ez izatea.
- b) Estatutuaren aurreikusitako moduan izendatua izatea.
- c) Erakundeko bazkidea izatea.

18. artikulua.-

Zuzendaritza Batzordeko kide izateko, lehendabizi, Batzorde Orokorrak izangaia hautatu behar du, eta, gero, izendatu horrek kargua onartu behar du.

Zuzendaritza Batzordeko kideen dieta eta gastuak ordaintzea erabaki dezake Batzar Orokorrak.


19. artikulua.-

Zuzendaritza Batzordeko kideek beren kargua utziko dute honelakorik gertatuz gero:

- a) Agintaldia bukatzen denean.
- b) Dimittitzen dutenean.
- c) Bazkide izateari uzten diotenean, edo kargua betetzeko ezintasun-arrazoiak dituztenean.
- d) Estatutu hauetako 16. artikulua aplikatuz, Batzar Orokorrak kargua baliogabetzea erabakitzen duenean.
- e) Hiltzen badira.

Bestalde, a) idatz-zatien agertzen dena baldin bada kargua uzteko arrazoiak, Zuzendaritza Batzordeko kideek jardunean jarraituko dute lehenengo batzar orokorra egin arte. Batzar horretan aukeratuko dira kargudun berriak.

Halaber, b), c), d) eta e) idatz-zatietan agertzen dena baldin bada arrazoiak, hutsik gelditutako kargua betetzeko norbait behin-behingo izendatuko du Zuzendaritza Batzordeak, eta Batzar Orokorrak erabakiko du izendapena onetsi ala ez. Ezetsi egiten badu, behar diren kargu-izendapenak egingo ditu.



GOVERNAMINTA PUBLICO
E LA OMOGOVERNAMINTA

DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA
PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO
Escuela de Administradores

Hona Zuzendaritza Batzordearen eginkizunak:

- a) Elkartearen eguneroko kudeaketaz arduratzea, Batzar Orokorraren jarraibideekin bat etorritik eta haren kontrolpean.
- b) Elkartea aurrera eramango dituen ekintzen egitaraua egitea.
- c) Gastu eta sarreraren urteko aurrekontua eta aurreko urteko kontuen egoera-orria Batzar Orokorrari aurkeztea, hark onar ditzan.
- d) Batzar Orokorraren bilertako gai-zerrendak egitea, eta ohiko nahiz ezohiko batzar orokorretarako delaldiak egitea erabakitzea.
- e) Bazkideek egiten dituzten proposamen eta iradokizunei erantzutea eta horien inguruan hartu beharreko neurriak hartzea.
- f) Estatutu hauetako aginduak Interpretatzea eta Estatutuetako hutsuneak betetzea, betiere elkarten inguruan indarrean dauden legeekin bat etorritik.
- g) Batzar Orokorrak berariazko erabakien bidez ematen dizkion eskumenak erabiltzea, betiere ez badira haren eskumen eskusibokoak.

Zuzendaritza Batzordearen bilkurak presidentek erabakitzen duen bakoitzean egingo dira, nahiz bere ekimenez nahiz edozela batzordekide eskatuta. Bilkurako buru presidentea izango da, eta hura ez balego, presidenteordea; eta bi horien faltan, batzordekide zaharrena.

Batzordeak hartutako erabakiak baliozkoak izateko, biltzen diren batzordekideen gehlengoak aldeko botoa eman behar du. Horretarako, gutxienez batzordekideen kopuruaren erdiak egon beharko du bilkuran. Berdinketarik egonez gero, presidentearen kalitateko botoa izango da erabakiko duena.

Idazkariak bilera-aktak egingo ditu, eta akta horiek gero dagokion lliburuan transkribatuko dira.

ZUZENDARITZA BATZORDEKO KIDEAK

LEHENDAKARITZA

Elkarteko presidentek beregain hartuko du elkartearen legezko ordezkaritza, eta Zuzendaritza Batzordeak eta Batzar Orokorrak hartutako erabakiak gauzatuko ditu. Era berean, alpaturiko bi organo horietako presidente izango da.

Presidenteak honako ahalmen hauek izango ditu:

- Zuzendaritza Batzordearen eta Batzar Orokorraren bilera-deiak egin, bilera**k** bukatutzat eman, bileretan sortzen diren eztabaidak bideratu, eta boto-berdinketa gertatuz gero kalitate-botoarekin erabakitzea.
- Elkartearen ekintzen egitasmoa Zuzendaritza Batzordeari proposatzea, eta elkartearen zereginak bultzatu eta bideratzea.
- Baliotasunez erabakitako ordainketak egiteko agintzea.
- Sortzen diren premiazko arazoak konpontzea, eta egiten den lehenengo bilkuran Zuzendaritza Batzordeari horren berri ematea.
- Batzar Okorrrak berariazko erabaki bidez ematen dizkion eskumenak erabiltzea, betiere ez badira haren eskumen esklusibokoak.

LEHENDAKARIORDETTZA (EGONEZ GERO)

Presidenteordeak presidenteari lagunduko dio, eta presidenteak ezin badu aldi batean bere kargua bete, presidenteordeak ordezkatuko du. Era berean, presidenteak berariaz eskuordetzen dizkion ahalmen guztiak izango ditu.

IDAZKARITZA


Idazkarlari dagokio, zehazki, elkartean sartzeko eskabideak jaso eta izapidetzea, fitxategia eta Bazkideen Erregistro Liburua zaintzea, eta Akta Liburuaren zaintzaren eta idazketaren ardura izatea.

Era berean, elkarteen arloan indarrean dauden legezko xedapenak betetzeaz arduratuko da, erakundearen agiri ofizialak zainduz, elkartearen liburuen eta artxiboen edukia egiaztatuz eta Zuzendaritza Batzordeko izendapenen eta egoitza sozialaren aldaketen berri emateko egin beharreko jakinerazpenak eginez agintari eskudunari.



DIRUZAINITZA

26. artikulua.- Egindako diru-sarrera eta ordainketen berri emango du diruzainak, eta diru-sarrera eta gastuen urteroko aurrekontua eta aurreko urteko kontuen egoera ere jakinaraziko du. Horiek guztiak Zuzendaritza Batzordeari aurkeztu behar dizkio, eta horrek Batzar Orokorrari, hark onartu ditzan.



BOKALAK (EGONEZ GERO)

27. artikulua.- Bokalek beren karguel datxezkien funtzioak izango dituzte, Zuzendaritza Batzordeko kideak diren aldetik (elkartearen zuzendaritza eta kudeaketa arrunta), baita batzordeak berak eskatzen dizkiena ere.

HIRUGARREN KAPITULUA

BAZKIDEAK: ONARTUAK IZATEKO BALDINTZA ETA PROZEDURAK, ETA BAZKIDE-MOTAK

28. artikulua.- Elkartekide izan nahi eta baldintza hauek betetzen dituzten pertsona guztiak izan daitezke elkarteko bazkide:

- Adin nagusikoa edo adingabe emantzipatua izatea, norberaren eskubideak erabiltzeko inolako lege-baldintzaren menpe ez egotea eta ebazpen judizial irmoaren bidez eskubideen erabilerara mugatuta ez edukitzea.

Pertsona juridikoak direnean, eskumena duen organoak bere baitan hartutako erabaki baliodunaren kopia aurkeztu beharko dute, eta bertan adierazi bai elkartzeko borondatea, bai beren izenean arituko denaren izendapena.

29. artikulua.- Elkartean sartu nahi duenak idatziz aurkeztu beharko du bere eskabidea, bi bazkidek sinatuta eta presidenteari zuzenduta. Presidenteak eskaeraren berri emango dio Zuzendaritza Batzordeari, eta azken horrek erabakiko du eskabidea egin duena elkartean onartu ala ez. Erabakiaren aurkako gorako errekurtsioa jar dakloke Batzar Orokorrari.


BAZKIDEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

30. artikulua.- Bazkidetutako pertsona guztiek eskubide hauek dituzte:

- 1) Elkarreel buruzko Legearen edo Estatutuen kontrako erabaki eta jardunak inpugnatzea, inpugnatutako erabakiaren edukia ezagutu duten edo ezagutzeko aukera izan duten egunetik egutegiko 40 eguneko epean.
- 2) Elkarrearen gobernu- eta ordezkaritza-organoen osakerari, elkarrearen kontu-egoerari eta elkarrearen jardueri buruzko informazioa jasotzea.
- 3) Elkarteko beste bazkideen nortasuna, diru-sarreraren eta gastuen egoera, eta elkarrearen ekintzen garapenaren berri edozein unetan izatea, datu pertsonalak babesteko arautegian aurreikusitako moduan.
- 4) Batzar orokorretarako deiak jasotzea, batzar orokorretara joan eta hitz egin eta botoa emateko eskubidea erabiltzea, eta eskubide hori beste bazkideren baten esku utzi ahal izatea.
- 5) Elkarrearen Estatutu hauen arabera, elkarteko zuzendaritza-organismoetan parte hartzea eta organo horietarako hautatzalle nahiz hautagai izatea.
- 6) Indarrean dauden legeetan zehaztutako bazkideen fitxategian agertzea, eta elkarrearen ikurra, baldin badu behintzat, erabiltzea.
- 7) Estatutuen eta, egonez gero, barne-araudiaren ale bana edukitzea, eta zuzendaritza-organismoari eskakizunak eta kexak aurkezteak.
- 8) Talde-ekintza sozialetan parte hartzea, eta bazkideentzako tresnak erabiltzea (elkarrearen egoitza, liburutegiak, eta abar).
- 9) Bazkideari diziplinazko neurriak ezarri aurretik, bazkideak idatziz adierazitakoa kontuan hartzea eta neurri horiek hartzea eragin duten arrazoiak buruzko azalpenak jasotzea. Neurriak hartzeko arrazoiak bazkideei dagozkien betebeharrak ez betetzean soilik oinarritu daitezke.
- 10) Edozein unetan baja ematea. Hala ere, hartu bai balia bete gabe dituzten konpromisoak bete beharko dituzte.

31. artikulua.- Hona bazkideen betebeharrak:

- a) Elkartearen helburuekin bat etortzea eta helburu horiek betetzen laguntzea.
- b) Kuotak, derramak eta Estatutuen arabera bazkide bakoitzari dagokion bestelako ekarpenak ordaintzea.
- c) Estatutuetatik eratorritako bestelako betebeharrak betetzea.
- d) Elkarteko zuzendaritza-organismoek baliotasunez hartutako erabakiei men egia eta erabaki horiek betetzea.



BAZKIDE IZATEARI UZTEA

32. artikulua.- Bazkide izaera honelakoren bat gertatuz gero galduko da:

1. Bazkidea hiltzen bada (edo, pertsona juridikoen kasuan, desagiten bada).
2. Bazkidea bere borondatez joaten bada.
3. Honelako egoeraren bat gertatzen bada: estatutu hauetatik ondorioztatutako betebeharrak modu larritz ez betetzea, behin eta berriz, eta nahita, edo gauza bera gertatzea Batzar Orokorrak edo Zuzendaritza Batzordeak hartutako akordio baliodunei dagokienez.

ZIGOR-ARAUAK

33. artikulua.- Bazkideek behin eta berriz hausten badituzte Estatutuak edo Batzar Orokorrak nahiz Zuzendaritza Batzordeak hartutako erabakiak, Zuzendaritza Batzordeak bazkide horiek zigortu ahal izango ditu.

15 egunetik hilabetera eskubideak kentzetik hasi eta elkartetik betiko kanporatzera arteko zigorra ezar daiteke, ondorengo artikuluek adierazitako moduan.

Horretarako, zigorgarriak izan daitezkeen jokabideak aztertzeak ikerketa egin dadila erabaki dezake presidentek. Ikerketaren Instruktoarea idazkaria izango da, eta berak proposatuko dizkio Zuzendaritza Batzordeari hartu beharreko neurriak.

Zigorra ezartzeko ahalmena Zuzendaritza Batzordeak izango du, idazkariak ez du horretan parte-hartzerik izango (Instruktoarea delako), eta zigorra ezarri aurretik Interesdunari entzunaldia eskainiko zaio. Zigortzeko erabakia arrazoi egin beharko da beti, eta erabaki horren aurkako errekurtsioa jarri ahaliko zaio Batzar Orokorrari.

34. artikulua.- Bazkideren batek elkartetik kanporatua izateko moduko ustezko egintzaren bat egiten badu, hau da, Estatutuetatik eratorritako betebeharrak eta Batzar Orokorrak edo Zuzendaritza Batzordeak baliotasunez hartutako erabakietan ezarritako betebeharrak nahita eta larriki behin eta berriz hausten baditu, gertaeren berri izatearren, presidentek idazkariari agindu diezaloke aurretiazko eginbide zehatz batzuk egin ditzala, behar den informazioa jasotzeko. Eginbide horiek ikusita, presidentek erabaki dezake jarduerak artxibatzeko agintzea edo elkartetik kanporatzeko zigor-espedienteari hasiera ematea.

35. artikulua.- Elkartetik kanporatzeko zigor-espedientea hasten bada, idazkariak, gertakariak egiaztatu ondoren, idatzi bat bidaltzeko interesdunari, leporatzen zaizkion karguen berri emateko. Kargu horiei erantzuteko, interesdunak bere aldeko arrazoiak azaldu ahal izango ditu hamabost eguneko epean. Epe hori amaituta, edonola ere, Zuzendaritza Batzordearen lehenengo bilkurako gai-zerrendan sartuko da kasua, eta batzordeak hartuko du erabakia. Erabakian ez du botorik izango espedienteko instruktoarea izan den idazkariak.

Elkartetik kanporatzeko erabakia interesdunari jakinaraziko zaio, eta, era berean, hurrengo ezohiko batzar orokorrean errekurtsioa aurkez dezakeela azalduko zaio. Hiru hilabeteren barruan batzarrik egiten ez bada, batzar bat egin beharko da horretarako bakarrik. Bitartean, Zuzendaritza Batzordeak inputatuari bazkide-eskubideak etetea erabaki ahal izango du, eta Zuzendaritza Batzordeko kide bada, kargu hori utzarazi beharko dio.

Batzar Orokorrari kanporatzeko espedientea aurkeztuz gero, idazkariak espedientearen laburpena egingo du, Zuzendaritza Batzordeak interesdunak aurkeztutako idatziaren eta egintzen berri zehatza Batzar Orokorrari eman ahal izateko, azken horrek dagokion erabakia har dezan.

36. artikulua.- Kanporatzeko erabakia arrazoitu egin behar da beti, eta erabaki hori interesdunari jakinarazi behar zaio. Interesdunak, eskubideaz ballatuz, auzitegiatarako ahal izango du bere ustez erabakia legearen edo Estatutuen aurkakoa bada.

37. artikulua.- Bazkideren bati kanporaketaren berri ematerakoan —berak nahi izanda edo zigorra ezarri zaiolako— bete gabe dituen betebeharrak bete ditzala eskatuko zaio.

LAUGARREN KAPITULUA

SOZINETATE-ONDAREA ETA AURREKONTU-ARAUAK

38. artikulua.- Elkartearen **SOZINETATE ONDAREA** 30 eurokoa da.

39. artikulua.- Elkarreak, bere jarduerak aurrera eramateko, diru-ballabide hauek aurreikusten ditu:

- a) Ondare-ekarpenak.
- b) Erabakitzen diren aldizkako kuotak.
- c) Elkartearen ondasun eta eskubideetatik datozen emaltzak, eta lege jasotzen dituen diru-laguntzak, legatuak eta dohaintzak.
- d) Zuzendaritza Batzordeak Estatutuen helburuak lortzeko egin beharreko zat jotzen dituen jarduera zilegietatik datozen diru-sarrerak.

ELKARTEAREN EKITALDIA ETA EKITALDI EKONOMIKOA urte betekoa izango da, eta **urte bakoitzeko abenduaren 31an itxiko da.**

Jarduera ekonomikoak gauzatuz (zerbitzuak ematea barne) elkarreak lortzen dituen irabaziak bere helburuak betetzeko baino ez dira erabili beharko. Inola ere ezingo dira bazkideen artean banatu, ez eta haien ezkontideen edota haiekin antzeko afektibitate-harremanean bizi diren pertsonen artean eta haien senideen artean ere. Ezingo zaizkie, halaber, irabazteko asmoa duten pertsona juridiko edo fisikoei doan laga.

BOSGARREN KAPITULUA

ESTATUTUAK ALDATZEA

40. artikulua.- Estatutuak aldatzea propio horretarako deitutako bazkideen ezohiko batzar orokorrean erabaki behar da. Zuzendaritza Batzordeak hiru bazkidek osatutako batzorde-txostengile bat izendatuko du, aldaketa-egitasmoa idazteko. Egitasmo hori Zuzendaritza Batzordeak ezarritako jarraibideen arabera egingo da, eta batzorde berak jarriko du egitasmoa amaltzeko epea.

41. artikulua.- Aldaketa-egitasmoa epe barruan idatzi eta gero, presidenteak Zuzendaritza Batzordearen hurrengo bilkurako gai-zerrendan sartuko du. Zuzendaritza Batzordeak egitasmoa onartuko du, edo, bestela, lantaldeari itzuliko dio, berriz aztertu dezan.

Onartua izanez gero, Zuzendaritza Batzordeak egiten den hurrengo batzorde orokor ezohikoaren gai-zerrendan sartzea erabakiko da.

42. artikulua.- Batzarrerako delarekin batera, Estatutuetako aldaketen testua bidaliko da, bazkideek egoki iruditzen zaizkien zuzenketak idazkaritzan aurkeztu ahal izateko. Zuzenketak horiek Batzar Orokorrari helaraziko zaio, batzarra egin baino zortzi egun lehenago jaso badira idazkaritzan.

Zuzenketak banaka nahiz taldeka egin daitezke, idatziz, eta aukerako beste testu bat izan beharko dute. Zuzenketak bozkatu ostean, Batzar Orokorrak Estatutuak aldatzeko erabakia hartuko du, eta Elkarreen Erregistro Orokorrean inskribatzen denetik aurrera baino ez du eragina izango beste hirugarrenengan.


SEIGARREN KAPITULUA

ELKARTEA DESEGITEA ETA ELKARTE-ONDAREAREN ZERTARAKOA

43. artikulua.- Elkartea honelako kasuetan ezabatuko da:


1. Bazkideek hala nahi dutelako. Nahi hori horretarako bildutako ezohiko batzar orokorrean azaldu beharko da.
2. Estatutuetan finkatutako epea edo baldintza bete delako.

3. Beste elkarte batek xurgatu duelako edo beste elkarte batzuekin bat egin duelako.
4. Legez ezarritako gutxieneko bazkide-kopururik ez duelako.
5. Epai irmo batek elkartea desagitea agintzen duelako.
6. Elkartearen helburuak betetzea ezinezkoa delako.



44. artikulua.-

Elkartea desaginez gero, horixe erabakitzen duen batzar orokor ~~ez-ohikoak~~ Batzorde Likidatzale bat izendatuko du, eta hark hartuko ditu bere ~~gaitasun~~ funtsak.



Bazkideekiko eta besteekiko elkarte-betebeharrak bete ondoren, ~~geratzen den~~ elkarre-ondarea, geratzen bada behintzat, irabazi-asmorik gabeko erakunde bati edo irabazi-asmorik gabeko ekimenen bati eman beharko zaio.

AZKEN XEDAPENA

Estatutu hauek garatzeko asmoz, Batzar Orokorrak barne-araudia onartu ahal izango du, baina horrek inolaz ere ez ditu Estatutuetako aginduak aldatuko.


AS / 6 / 07895 / 1999

Legearen 145/2008, de 20 de julio, por el que se aprueba el Reglamento del Registro General de Asociaciones del País Vasco y demás normativa concordante.

2017 AZA. - 3

Visados los presentes Estatutos, a los efectos determinados en el Decreto 145/2008, de 20 de julio, por el que se aprueba el Reglamento del Registro General de Asociaciones del País Vasco y demás normativa concordante.

ELKARTEEN ERREGISTROA / REGISTRO DE ASOCIACIONES



[Handwritten signature]

[Handwritten signature]